


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2004ko ABENDUA

Euskal AEko industri jarduera %2,0 hazi zen 2004ko abenduan

Datu horien arabera, Industri Produkzioaren Indize Orokorra %4,1 hazi zen 2004an.

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2004ko abenduan %2,0 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2003ko hil beraren aldean. Lan-egutegiaren balio homogeneotan, urte arteko aldakuntza %1,9koa izan zen. 2004 osoko hazkunde-tasa metatuak %4,1eko hazkundera izan zuen balio absolututan, eta %3,7koa lan-egutegiaren balio homogeneotan, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1999-2004



Iturria: EUSTAT

2004ko abenduan, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%21,2), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%4,1), *elikagai-industria* (%4,1), *garraio-materiala* (%3,5) eta *kautxua eta plastikoa* (%2,7) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan zituzten: *petrolioa fintzea* (%-11,7), *zurgintza* (%-10,6), *kimika-industria* (%-9,0), *ehungintza eta jantzigintza* (%-6,6), *ez-metalezko industria* (%-6,0) eta *larruaren eta oinetakoen industria* (%-2,7) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2004ko abenduan, igo egin ziren *energiaren* (%10,4) eta *ekipo-ondasunen* (%5,1) urte arteko tasak, baina apur bat jaitsi ziren *bitarteko ondasunenak* (%-0,7) eta *kontsumo-ondasunenak* (%-0,8). Azken horien

baitan, %3,2 jaitسي ziren *kontsumo-ondasun iraunkorrak* eta apur bat igo ziren (%0,3) *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak*.

Lurralde historikoaren arabera, Indize Orokorren urte arteko bilakaerak desberdinak izan ziren: balio absolututan, %4,6 hazi zen Gipuzkoan eta %1,5 Bizkaian, baina %1,2 jaitسي Araban.

2004ko urteko balantzea

Industri Produkzioaren Indize Orokorren tasa metatuaren %4,1eko gehikuntzarekin itxi zen 2004ko balantzea, aurreko urtearen aldean. Datuen alderaketa homogeneoa egiteko lan-egutegiaren eragina zuzenduta, 2004ko hazkunde metatua %3,7koa izan zen.

2004ko aldakuntza metatuek hazkundeak erakutsi zituzten *energian* (%16,6), *ekipo-ondasunetan* (%5,2) eta *bitarteko ondasunetan* (%2,5), baina jaitsierak *kontsumo-ondasunetan*. Azken horiek orotara, %0,1 jaitسي ziren; zehatzago, %2,9 jaitسي ziren *kontsumo-ondasun iraunkorrak* eta %1,2 igo ziren *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak*.

2004ko balantzean lurralde bakoitzak joera desberdina izan zuen, hiruretan positiboa izan bazen ere: hazkunde metaturik handiena Araban (%7,3) izan zen, ondoren Bizkaian (%3,4), eta azkenik Gipuzkoan (%3,1).

Taula: 2004ko ABENDUA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	2004		2003	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	2,0	1,9	4,4	2,3
Araba	-1,2	-1,4	14,5	11,3
Bizkaia	1,5	1,6	0,9	-0,6
Gipuzkoa	4,6	4,3	2,9	0,7
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-0,8	-0,9	3,6	0,4
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-3,2	-3,2	0,5	-2,4
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,3	0,3	5,1	2,0
Ekipo-ondasunak	5,1	4,2	4,5	2,2
Bitarteko ondasunak	-0,7	-0,6	4,2	1,9
Energia	10,4	10,5	6,4	5,0

(*) lanegunez zuzendua

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp